



Azpeitiko Udala

**GIPUZKOAKO ABERE ETA LANDARE BABESLE
ELKARTEAREN (SPAPG) ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, BAZTER UTZITAKO
TXAKURREN ETA KATUEN BABESAN LAGUNTZEKO.**

Azpeitian, 2020ko azaroaren 9n.

BILDUTA

Batetik, **Itziar Mintegui Martinez** Andrea, **GIPUZKOAKO ABERE ETA LANDARE BABESLE ELKARTEAREN (SPAPG)** izenean eta bera ordezkatzuz lehendakari gisa. SPAPG ELKARTEAK Usubilen du helbidea (Kalezar auzoa 84 zk), Euskadiko Elkartearen Erroldan inskribatuta dago (erregistro zk: 1. Sekzioa AS R.P.G.00258) eta honako IFK du G-2004846.

Bestetik, **Nagore Alkorta Elorza** Andrea, **Azpeitiko Udalaren** izenean eta hura ordezkatzuz, Alkate-lehendakari gisa (Udalbatzak 2019ko ekainaren 13an hartutako akordioa).

DIOTE

I.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzeko eta kudeatzeko eskumen propioa aitortzen die Udalei.

Esparru honetan, urriaren 29ko Eusko Legebiltzarraren 6/1993 Legeak, animaliak babestekoa, besteren artean, honako betebeharrak ezartzen dizkie Udalei.

-Dagokion udalerrian bazter utzitako animaliak edo jabearen laguntzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzea.

-Animalia jasota eduki eta mantendu 30 egunez gutxienez.

-Langileak eta toki egokiak izatea animaliekiko betebeharrak horiek betetzeko.



-Udal bakoitzak dituen betebeharrak zuzen hauetaz gain, aipatuak legeak aurreikusten du Animalien Babesa eta Defentsarako Elkarteei hitzarmenak egitea betebeharrak horiek, zeharka bada ere, betetzeko.

II.- Azpeitiko Udalak bazter utzitako animaliak edo jabearen laguntzarik gabe noraezean dabilzanak jasotzeko eta toki egokian mantetzeko zerbitzuak baditu. Txakurren kasuan animalia horiek Azpeitiko Odria auzoa, 473n Basabe baserriko terrenoetan kokatuta dagoen Gorriye Txakur egoitzan mantentzen dira 30 egunez gutxienez*, eta katuen kasuan Oñatz Animalia Elkartean gain dago noraezean dabilzan animalien zaintza.

*2020. ekitaldi honetan dagokion kontratazio espedientea tramitatuko da zerbitzu horretarako.

III.- SPAPG Animalien Babesa eta defentsarako Elkarte bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburu soziala, besteren artean (bere Estatutuen 2. artikuluan jasota dagoen bezala) honako hau da:

- Animalien eta landareen babesa eta defentsa.
- Gipuzkoa, alde baterako beharra duten animaliei jabe dutenei edo jabe gabekoei aterpea eta arreta eskaintzeko zerbitzuak sustatzea.
- Agintariei, animalia eta landareen babesa eta errespetuaren arloan, ahalik eta laguntza gehien eskaintzea.

Urteetan garatutako lanaren merezimendu gisa SPAPG Elkarteak "Interes Publikoko Elkarte" izendatu zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 1994ko urriaren 11n hartutako akordio bidez (urriaren 11ko 395/94 Dekretua; 1994ko azaroaren 18ko EHAAren argitaratua).

SPAPG Elkartek baditu baliabide pertsona eta materialak Gipuzkoako udalekin hitzarmenak gauzatzeko; Udal hauei eskainiz 6/1993 legeak ezartzen dizkien betebeharrak.

Horretarako SPAPG Elkartek animalientzat aterpe bat du, Zuhaitzpe izenekoa; Usurbilen kokatua (Kalezar Auzoa, 84 zk) eta Gune Zoologikoen Erregistroan inskribatua.





Azpeitiko Udala

SPAPG Elkartearen aterpean lan egiten dute bi albaitari, eta mantenuko eta administrazioko zenbait langilek.

IV.- Azpeitiko Udalak interesa du SPAPG Elkartearekin hitzarmen bat egiteko, 6/1993 legeak aurreikusten dituen betebeharrak osatzeko (noraezean dabiltzan animalien zaintzarako bigarren fasea), eta SPAPG Elkartea interesatuta dago hauek emateko ordainketa baten truke.

Horregatik, bi aldeek lankidetza hitzarmena egin nahi diote oinarritzat hartuz ondorengo

ITUNA

1.- Xedea

Lankidetza hitzarmen honen bidez SPAPG Elkartek bere gain hartzen du, Azpeitiko Udalari Eusko Legebiltzarrak urriaren 29ko 6/1993 Animaliak Babesteko Legearen bidez ezartzen dizkion honako betebeharrak betetzea:

1.- Azpeitiko Odria auzoa, 473n Basabe baserriko terrenoetan kokatuta dagoen Gorriye Txakur egoitzan 30 egun baino gehiago egon diren bazter utzitako txakurrak jasotzea, batetik bestera eramateko zerbitzua ere barne hartuz.

Modu berean Udalak horrela eskatuta, eta Oiñatz Animalista Elkartearekin elkarlanean, noraezean dabiltzan katuak jasotzea.

*Udalak tramitatuko duen kontratazio espedientea tramitatu ondoren datozen urteetarako zerbitzuaren kontratista zehaztuko da.

2.- Animaliak Usurbilgo Zuhaitzpe aterpean eduki eta mantentzea

3.- Langile eta toki egokiak izatea animaliekiko betebeharrak horiek betetzeko.

Lankidetza hitzarmen honetan aipatzen diren animaliak, zakurrak eta katuak izango dira.

2.- Bilketa, identifikazioa eta erregistroa.



SPAPG Elkarteak Azpeitiko Odria auzoa, 473n Basabe baserriko terrenoetan kokatuta dagoen Gorriye Txakur egoitzan 30 egun baino gehiago egon diren bazter utzitako animalien bilketa egingo du, eta bere aterpera eramango ditu.

Animalien bilketa egiteko ohiko ordutegia lanegunetan izango da, 8:00etatik 20:00etara.

Bilketa egiteko gunea txakurren kasuan Gorriye Txakur egoitza izango da, edota, kontratista berriaren egoitza, hala balegokio.

Bilketa egiteko gunea katuen kasuan, horien dauden lekua izango da.

Usurbilgo Zuhaitzpe aterpera iristen diren animaliak -iadanik identifikazio pertsonalarekin identifikatuak- erregistratu egingo dira SPAPG Elkarteak duen erregistro liburuan. Bertan, bulegoko arduradunek animaliarekin zerikusia duten datu guztiak jasoko dituzte (argazkia barne), eta baita, adina, talla, sexua, arraza, ilearen kolorea, mikrotxipa, etab.

3.- Egonaldia

Gorriye Txakur egoitzatik ekarri den txakurra eta Azpeititik ekarri den katua Zuhaitzpe aterpean bertan geratuko da, SPAPG Elkartearen kontura. Animalia adopzioan eman ahal izango da, edo azkenik eutanasia ere jaso dezake.

Animali guzitei emango zaie elikagi egokia eta albatarritza-zainketa, larrialdikoa zein ohikoa.

Jasota dauden animalien kopuruak ezingo du gainditu arreta on batek eskatzen duen koporu muga. Hau da, ezingo dira 140 animalia baino gehiago, gutxi gorabehera.

Animaliak Aterpean jasota dauden bitartean, SPAPG Elkarteak hitzematen du honakoa egingo duela:

a) Higiene eta osasunezko baldintza egokietan eduki, egunero luzaketarako aukera emanez.





Azpeitiko Udala

b) Instalazioak garbitu eta desinfektatu egunero.

c) Behar duten janaria egunero banatu.

d) Erregistro liburu bat bete.

e) Superpopulazioa ekidin.

f) Zakurren eta katuen adopzioa sustatu laguntzeko animalia bezala, animalia bat izateko interesa duen edo dagoeneko animalia bat duen populazioari, hezteko eta arduratzeko dauden baliabide ezberdiak erakutsiz.

g) Animaliekin ez komertzializatu.

4.- Animalien adopzioan

SPAPG Elkartek animalia hauen adopzioa sustatu beharko du laguntzako animaliak izateko intesa duten pertsonen artean, beti ere, animalia zainketa egokia bermatzen badute, bai tratu aldetik, bai elikadura aldetik, baita zainketa sanitarioaren aldetik ere.

Jabe berriei emango zaizkien animaliak osasuntsu, parasitoak hilzeko tratamendua jasota, txartel sanitarioarekin, mikrotxip bidez identifikatuta.

Erregistro liburua irteera eguna eta jabe berriaren izena NAN, telefono zenakia jasoko dira.



5.- Eutanasia

Animaliak sakrifikatu hala izango dira, soilik jabe pribatu bat aurkitzeko eginahal guztiak egin ondoren, eta horretarako prestatutako tokian ezin direnen denbora gehiagoz eduki.

Animalia zainketa adopzioarako epea ezingo da HILABETE baino gehiago luzatu Udalaren kontura. Epe hori gaindituz gero, Aterpenaren zuzendaritzak bere erabakia hartu beharko du animalia zainketa.



Edozein kasutan, animalia Aterpera sufrimendu egoeran iristen bada eta albaitariaren ustez egoera konpenezina bada, orduan bai, eutanasia burutu ahal izango da salbuespen gisa. Gainontzekoan, eutanasia burutzeko aurreko atalean emandako egoera eman behar da.

Eutanasiak albaitari arduradunek burutuko dituzte beti, eta horretarako, bide eraginkorra azkarra eta humanarioa erabiliko da (indizioa).

Azaroaren 22ko 454/1994 Dekretuak, Euskal Autnomia Elkartearen animaliak sakrifikatu eta hiltzeko unean babesteari buruzkok animalia hauentzako jasotako arautegia bete beharko da.

6.- Zerbitzuen prezioa

Elkarteak eskainitako zerbitzuengatik, Azpeitiko Udalak animalia bakoitzeko honako prezioak ordainduko dizkio elkarteari ordain gisa:

-Txakurra edo katua kokatua dagoen lekutik Aterpera eramateko irteera: **0,53 euro km.**

-Egonaldia eta mantenua: **7,85 € /zakur/egun**

-Egonaldia eta mantenua: **4,73 € /katu/egun**

Animalia bere jabeak jasotzen badu, gastu guztiak (partikularrei emandako zerbitzu bezala fakturatuak) bere kontura izango dira, udalari kosturik eragin gabe.

Eutanasi eta gorpua eramatea: erraustu beharreko animalia bakoitzak duen pisuaren arabera:

-20 kg. Arte: 100 €

-20 kg. baino gehiago: 130 €

Zerbitzu hauek hileko azken egunean fakturako dira, hilabete horretan egindako bilketak eta hauei lotutako zertztizuei dagozkienak bildu. Prezio guztiei une bakoitzean aplikagarria den BEZa gahituko zaie.



Azpeitiko Udala

Prezio hauek eguneratu egingo dira urte bakoitzaren hasiera, dagokion KPIa apliaktuz.

7.- Iraupena

Hitzarmen honek, hasiera batean, LAU urteko iraupena izango du, **2020ko azaroaren 15etik aurrera kontatzen hasita.**

8.- Zerbitzuaren koordinazioa

Azpeitiko Udalaren gain izango da zerbitzuaren atal ezberdinak koordinatu eta ikuskatzeko ahalmena, eta baita edozein zalantza argitzeko eskumena ere.

Koordinazio lanak Ingurumen alorreko zinegotziaren bidez tramitatuko dira, eta alde guztiek, Udaltzaingoa barne, eman daitezkeen ebazpen, interpretazio edo irtenbide guztien berri izango dute.

Eta ados daudenaren seinale, bi aldeek sinatu dute agiri hau, ale bikoiztuan, goiburuan adierazitako leku eta datan.

Azpeitiko Udalaren izenean Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean,

Sin.: Nagore Alkorta Elorza



Sin.: Itziar Mintegui Martinez



